

1



2



3

FITXA TEKNIKOA / FICHA TÉCNICA

- Gaia / Tema: Andra Mari.
- Teknika: Egur taila polikromatua.
  Técnica: Escultura en madera tallada y policromada.
- Garaia: Gotikoa
  Fecha: Gótica.
- Neurriak / Medidas: 96 x 48 x 22 cm.
- Jatorria: Agiñagako Sortzez Garbiaren eliza.
  Procedencia: Iglesia de la Purísima Concepción de Aguiñiga.
- Proiektua eta Ikuskapena: Zaharberrikuntza Zerbitzua. Euskara, Kultura eta Kirol Saila.
  Proyecto y supervision: Servicio de Restauraciones. Departamento de Euskera, Cultura y Deportes.
- Zaharberritze lanak: Aldundia-Gotzaigoa Bitariko Batzordearen Hitzarmena.
  Restaurado por: Convenio Comision Mixta Diputacion-Obispado.
- Zaharberritzaileak / Restauradoras:
  Amaia Arrieta, Nagore Cámara.
- Urtea / Año: 2008

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



ONDAREAREN BERRESKURATZEA
RECUPERACIÓN DE PATRIMONIO

# *AGIÑAGAKO* ANDRA MARI DE AGUIÑIGA

## Agiñagako Andra Mari

Lan hau 2008ko udan agertu zen lurperatuta, Agiñagako Sortzez Garbiaren parrokia elizako Santiago kaperan egiten ari zen esku-hartze arkeologikoan. (1. argazkia)

Haren kontserbazio egoera guztiz larria zen, 200 urte baino gehiago lurpean egonda irudiak zeukan bionarriadura eta usteldura maila altuaren ondorioz.

Foru Aldundiaren Zaharberrikuntza Zerbitzuko teknikariak uztailaren 15ean eta 16an joan ziren bertara, Andra Mariren egurrezko euskarria sendotzeko, gainazala gasaz biltzeko eta lekuz aldatu aurretik aztarna urriak babesten saiatzeko. (2. argazkia)

Eskultura honen gainean, egurrezko beste bi irudi osagabe aurkitu ziren. Seguraski San Bartolome eta Santa Luziaren aztarnak dira, irudi horiek ere lurperatu egin baitziren, Andra Mari bezalaxe, apezpikuak 1791n Agiñagako elizara egindako ikustaldian eman zuen aginduarengatik: *"Estando mui indecentes y ser figuras mui ridiculas, que en lugar de atraer a deboción causan irreverencia"*. Hala, hamabost eguneko epean zatitu eta lurpean sar zitezela agindu zuen, Micaela Portillak Gasteizko Elizbarrutiko Monumentu Katalogoaren II. liburukian aipatzen duenez.

Artelana Zaharberrikuntza Zerbitzura eraman eta berehala, onddoen aurkako tratamendua egin zitzaion, eraso biologikoari aurrea hartzeko, eta poltsa batean bildu zen, hezetasun handia –indusketetatik ateratako edozein materialen ezaugarria– astiroago galtzeko. Ahal zen neurrian, harrotutako egurra lehortzearekin eskultura arrakalatu eta uzkurtzea eta haren bolumena aldatzea galerazi zen. Hala ere, haren kontserbazio egoera hain tamalgarria zen non egur puska batzuk topatu genituen, guztiz bananduak eta hondatuak, inolako formarik gabeak, eta irudi bat guztiz osagabea, bere erdialdean lurrez eta zaborrez soilik betetako hutsune handia zeukana. Azken finean, geratzen ziren egur aztarnak ustelduta zeuden, hauts itxurarekin, eta ez zuten batere sendotasunik. (3. argazkia)

Egindako PRESAZKO TRATAMENDUA hau izan zen:

• Giro baldintzak egonkortzea eta alkohol nipaginatuz ondoak deuseztatzea.

• Gasaz bildu gabeko atzeko aldetik erretxina akrilikoz eta proportzio desberdinetan sendotzea, hain zatituta zegoen egurrezko euskarriari sendotasuna emateko, eta arraildurak epoxy erretxina termoegonkorrez indartuz. (4. argazkia)

• Atzeko aldea sendotu eta gero, irudiari buelta eman zitzaion eta gasa kendu egin zen, Andra Mariren aurrealdean geratzen ziren egur eta polikromia aztarnak berriro sendotzeko. (5. argazkia)

• Polikromia aztarnak finkatzea eta berripintzea.

• Polikromia eta urreztadura garbitzea. (6. argazkia)

• Egurrezko puskak itsastea, artelana osatzen zuten blokeekin lau zati osatzea lortu arte, eta junturak betetzea..

• Irudiaren bloke edo zatiak egur-aralditekin elkarri lotzea eta oinarria berreraikitzea, egonkortasuna emateko. (7. argazkia)

• Egur-aralditaren leheneratze kromatikoa.

## Andra-Mari de Aguiñiga

Esta obra apareció enterrada en el verano de 2008 durante la intervención arqueológica que se estaba llevando a cabo en la capilla de Santiago de la Parroquia de la Purísima Concepción de Aguiñiga. (Foto 1)

Su estado de conservación era de extrema gravedad debido al alto grado de biodeterioro y podredumbre que presentaba la imagen al llevar más de 200 años enterrada bajo tierra.

Técnicas del Servicio Foral de Restauraciones acudieron los días 15 y 16 de julio para consolidar el soporte de madera de la Andra-Mari y engasar la superficie e intentar preservar los escasos restos antes de su traslado. (Foto 2)

Sobre esta escultura se encontraron otras dos figuras incompletas de madera. Posiblemente correspondan a restos de San Bartolomé y Santa Lucía, imágenes también enterradas al igual que la Andra-Mari por orden del obispo en la Visita Pastoral que en el año 1791 realizó a la Iglesia de Aguiñiga *"estando mui indecentes y ser figuras mui ridiculas, que en lugar de atraer a deboción causan irreverencia"* y mandaba que en el plazo de quince días se hicieran pedazos y se enterrasen, según cita Micaela Portilla en el II tomo del Catalogo Monumental de la Diócesis de Vitoria.

Una vez trasladada la obra al Servicio de Restauraciones se le aplicó inmediatamente un tratamiento fungicida para prevenir el ataque biológico y se embolsó para ralentizar la perdida de la elevada humedad, característica de cualquier material procedente de excavaciones. Se evitó en la medida de lo posible, que con el secado de la madera hinchada, la escultura se agrietara y encogiera alterando su volumen. Sin embargo su estado de conservación era tan lamentable que nos encontramos con unos fragmentos de madera totalmente disgregados y desmoronados, sin forma alguna y una figura muy incompleta con un gran hueco en su parte central relleno solo de tierra y escombros. En definitiva los restos que quedaban de madera estaban podridos, pulverulentos y no tenían ninguna consistencia. (Foto 3)

El TRATAMIENTO DE URGENCIA aplicado consistió en:

• Estabilizar las condiciones ambientales y eliminación de los hongos con alcohol nipaginado.

• Consolidación por la parte posterior no engasada con una resina acrílica y en distintas proporciones para darle consistencia al soporte de madera tan disgregado y reforzando las grietas con una resina epoxy termoestable. (Foto 4)

• Una vez consolidado el reverso se dio la vuelta a la imagen y se procedió a retirar la gasa para volver a consolidar los restos de madera y policromía que quedaban de la Andra-Mari por el anverso. (Foto 5)

• Fijación y recolocación de los restos de policromía.

• Limpieza de la policromía y dorado. (Foto 6)

• Pegado de piezas de madera hasta conseguir formar cuatro partes con los bloques constituyentes de la obra, rellenando las juntas.

• Unión de los bloques o parte de la imagen con araldit-madera y reconstrucción de la base para darle estabilidad. (Foto 7)

• Reintegración cromatina del araldit-madera.

4



5



6



7

